

ttipi-ttapa

1991.eko Irailak 26

70. zenbakia

dohain banatzen da



**AGROTURISMOA:
FENOMENO BERRIA**

EUSKALTEGIAN BADUZU AUKERA APUNTA ZAITEZ!

Zertarako?

- ❖ *Ttipi-ttapa, Egunkaria... enezago irakurtzeko.*
- ❖ *Euskal Telebista edo Irratia enezago ulertzeko.*
- ❖ *Udaletxeko paperetan, charnak, eskutitzak... euskaraz idazteko.*
- ❖ *Umeei eskolako lanetan laguntzeko*
- ❖ *Kantak, bertsoak, historia... gure hizkuntza eta kultura hobeki ezagutzeko.*

MAILA GUZTIAK

- Hasiera
- Hobetzeko
- Mintzatzen dakitenentzat,
irakur, idazteko
- EGA

ORDUTEGIAK

- Asteaz 8 ordu (lau egun)
- Larunbatez lau ordu (EGA
edo antzekoak)

ZENBAT DENBORA?

- Urrik maiatzera
- 2 hilabetekoak

• LEITZALDEA	610776
• MALERREKA	451555
• BORTZIRIAK	637796
	631105



Herri guzietan egin daitezke taldeak

URRIAREN 8a arte

non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/23 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 24 ERREPORTAIA:** "36 baserri - hotel gure eskualdean" Agroturismo programaren barnean kokaturik.
Aitor Arozena
-
- 26 ELKARRIZKETA:** "Duzuna eman, eman euskara" gurasoen partehartzea bilatzen dute Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Euskara Zerbitzuek
Joxemanuel Irigoien
-
- 28 KIROLAK:** "Desafio mundiala Arantzan, Mendaurreako joan etorrian"
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 4.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** R. Harribilaga, Oskar Txoperena, Patrizia Arburua, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Jon, Arantxa, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton, Patxi Petrirena, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa* . **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurilaritza.... **Inprimategia:** Jomisa (Irun)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea.....102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria.....226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Elizondo (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► Irailaren 28-29an, Bera, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

► Urriaren 5-6an Arantza, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

Bestak

► IGANTZI, Irailaren 27, 28, 29 eta 30ean.

► ARIZKUN, Irailaren 28 eta 29an, errefetak

► URROTZ, Irailaren 27, 28, 29 eta 30ean.

Kirolak

► LESAKA, Irailaren 28an, Basurde elkarteak antolaturik, jubenilen txirrindularitza froga.

Deialdiak

► LESAKA, Urriaren 4ean, arratsaldeko 5etan, Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

► IGANTZI, Urriaren 7an, arratsaldeko 7etan, Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

► BERA, Urriaren 8an, arratsaldeko 7etan, Berako Euskara Batzordearen bilera.

► ARANTZA, Urriaren 10ean, arratsaldeko 5etan, Arantzako Euskara Batzordearen bilera.

Sariketak

► ELIZONDO

BEHI eta ARDI
AZIENDA SARIKETA

Noiz: Urriaren 6an.

Apuntatzeko epea:
Buruilaren 28a arte.

Izen emateko lekua:
Balleko Etxean.

Parte hartzaileak:
Baztan, Urdazubi edo
Zugarramudikoak be-
harko dute izan.

Informazioa: Parte
hartzeko baldintzen ze-
rrenda eta gainerako
xehetasunak, Baztango
Balleko Etxean daude
ikusgai.

Bota bertsoa



Joxe Mari AIZAGIRRE

Gaia: Txirrindularitza pesta,
Leitzan

Doinua: Andre Madalen...

Lengo jaiean buka zitzagun
alde hontako txirrindularitza,
Malda-Erreka ta Baztandarrak
Bidasoa eta Leitza,
guraso denak umearekin
bestaz besta gabiltza
nahiago genduke askoz ere
jende gehiago balitza.

Hau da guraso guztiek duten
gaurko kezkarik haundiena,
karretera dela hemengo arrisku
txarra eta larriena,
gogoan bait degu gure saileko
bati gertatu zaiona,
inoiz ez zaigu anztuko hain
ona zen Iturri zena.

AGENDA

Bertsoak

BERA

BIDASOA VII. BERTSO PAPER LEHIAKETA

Baztan Bidasoa inguruan bizi direnzentzat.

1.- Argitaratu gabe-ko bertsoak izan behar dute.

2.- Beste lehiaketaren batean saririk jaso duten bertsoak ezin dute parterik hartu.

3.- Norberak aukeratu du gaia, kantatuko duen doinua eta neurria.

4.- Hiru maila izanen dira:

A- 14 urtetaraino. 4na bertso guttienez, B. 14-16 urte bitartekoak, 6na bertso guttienez eta D. 16 urtetik aintzinerara, 8na bertso guttienez.

Bertsoak Gure Txokoa elkartera Urriaren 15a baino lehen bidali beharko dira ohizko sistema erabiliz.

Gure Txokoa Elkar-
tea - Eztegaral. - BERA

Gastronomia

MINGAINA SALTSAN

Osagaiak

4 lagunendako:

Mingain bat, 1/4 kilo ilarra,
1/2 kilo txanpinoia, tipula
bat, baratzeria, perrexila,
arraultzak eta irina.

Lehenbiziko, mingaina
egosi. Azala kendu eta xe-



Sagrario Matxñenak emana
BETI JAI Jatetxea - BERA

rrakegin, ondoren rebozatu
arraultza eta irinarekin.

Kaxuela batean tipula eta
baratzuria fin-fin xehetu.
Egina dagoelarik, mingai-
na jarri eta salda beroa
gainetik bota. Gero, txan-
pinoiak eta ilarrak ere,
kaxulara bota.

Gainetik perrexila xehetua
bota eta 15 bat minutu utzi
irakitten eta jateko prest.

On egin!

Baserriko feria

ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 ki-
lokoa): 4.700 pzta. Zerri
gizena (95-100): 157 pzta/
kilo Urdamak: 60-80 pzta./
kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....550
1.koa.....525
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....570
1.koa.....540
2.koa.....500
Oharra: Prezio hauek 300-
340 Kg. kanalean dauzka-
ten idixko eta 200-250 Kg.
dituzten urruxentzako.

Baztango aretzea: 625
pzta/kg. Kanal.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizenak: 300
Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri

ona: 370 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 13.000
eta idixkoak 23.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 25.000
eta idixkoak 34.000 pzta

BILDOSKIA

• 12 Kilokoak 610
pzta/kiloa.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

MOBLEAK
METS

Bidasoa 45, Tfnoa: 63 05 37 - BERA

SUKALDEAK
LOGELAK
EGONGELAK

Deitu eta neurtzera
joanen gara.

Konpromisorik gabe!!

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa: 63 07 63



Kontxita Vicente
Igantziko sukaldaria

- **Betiko errezetak ala berrituak?** Betikoak nahiago.
- **Prestatzerakoan zer nahiago, haragikia ala arraikia?** Arraia gustorago.
- **Zein nahiago, jan eta berehala aldegiten dutenak ala kantari gelditzen direnak?** Berehala joaten direnak.
- **Kliente gazteak ala zaharrak?** Ahal bada guztiak.
- **Serbitzariak mutilak ala neskak?** Neskak.
- **Arrain zopa ala babarrun gorriak?** Ilar gorriak.
- **Jantokia musikarekin ala gabe?** Hobe gabe.
- **Janariak gatzaz guti hornituak ala gaziagoak?** Hobeak gatzaz gutirekin.
- **Bestetan lana ala juerga?** Juerga.
- **Dantatzeko jota ala lanbada?** Lanbada. Hori dago modan, ezta!.
- **Aretzeak plazan ala labean?** Labean, noski.

► **Gure jarrera**
Negu Gorriak
Euskadi 1991

Kaleratu berria du, gauregun Euskalerriko talde hobereenetako den honek, bere bigarren diska: diska berezia eta izenak dioen bezala, Negu Gorriak-koen jarra argi eta garbi azaltzen duena: borroka eta musika uztartzearena, hain zuzen. Diska osoan zehar doinu gogorrak entzun daitezke, rap, rock eta punk-aren nahasketa, erritmo berezietan batera. Letrei dagokienez, ohizko bideari jarraitzen diote Muguruza anaiek



«Gora Herria Tour»-ari ekin diote Negu Gorriak-koek

eta Kaki Arkarazok, baina oraingo honetan laguntzaile bikain batekin: Jon Maia, bertsolari zumaiarra. Aipagarriak dira bere bertsoak, «Buru garbiketa» edo «NG gurea dek garaipea» abestietan.

Hasiera batean, talde espe-

rimental bezala sortu zena, kontzertuak eskeintzeariukoeginez, apostu gogorra egin du oraingoan: presoen aldeko martxa zela eta Herreran emandako lehen kontzertuari jarraipena ematea «Gora Herria Tour» deitutako jirarekin, hain

zuzen. Ezpeletan eman zion hasiera jira honi, «Dirty District» talde parisdararekin batera. Hemendik aintzinerara, Europako herrialde ezberdinetan, baita Kuban ere, izanen dute talde euskaldun honen berri.

AITOR



**AFRO
REGGAE
ZOUK**

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



**Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza**

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESACA

LUR APAL MEKANOTERAPIA ZENTROA

**BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA**

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESACA

Laminaciones-ek enplegu erregulazio espedientea proposatu

Abuztuan kaleratu ziren lehen zurrumurruak eta komunikabideetan agertu ziren gai honi buruz zenbait berri.

Irailaren 13an, enpresak eman zion Enpresa Batzordeari Lan Ministeritzan aurkeztuko duen proposamen zehatza. Bertan, 2 motatako enplegu erregulazio agertzen dira: 218 langilek euren jardunaldia heren batean guttituta izanzen lukete 6 hilabetez eta 18 langilek berriz, denbora berean kontratua etendua. Gehienak bulego langileak eta egunezko txandan aritzen direnak dira.

Enpresak arrazoi ekonomikoak argudiatzen ditu (altzairuaren prezioaren gorakada). Orain, espedientea enpresak aurkeztu zuen egunetik 15 egun gelditzen zaizkie komiteari eta sindikatuari proposamen hau onartzeko edo errefusatzeko gero, kontrako txostenak Lan Ministeritzan aurkezteko, honek bere erabakia kalera-tuz.

Lantegiko talde sindikalak neurri honen aurka daude eta neurri honek ez omen du deus konponduko.



Bortzirietako Bertso eskolak ikasturteari hasiera emanen dio

Ostiralero, arratseko 8etatik 10etara .



Urriaren lehenbiziko asteburuan Goizuetan Nafarroako bertso eskolek burutuko duten barnetegi batekin, hasiera emanen dio Bortzirietako Bertso eskolak ikasturte berriari. Modu honetan, jarraipena emanen zaio iaz egindako lehen ikastaroari, aurtan ere irakasle berak arituko direlarik, hau da, Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien. Iaz, 22 gazte aritu ziren bertsoak lantzen, 15

Arantzakoak, 6 Lesakakoak eta Arizkungo bat. Aurtan, "Bera, Etxalar eta Igantziko gazteak ere animatzea gustatuko litzaike, bertso eskola parte hartu nahi duten guztiei zabalik bait dago" erran dute arduradunak. Klaseak, Lesakako Arrano kultur elkartean burutuko dira, ostiraletan 8etatik 10etara. Informaziorako eta apuntatzeko deitu 637891 telefonora.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



BERTIZARANAKO ALKATEA GEZURKERIETAN ARI DA!!

Azkenotan izan-dako gertaerak nola izan diren argitzera natorkizue, ezin bait dugu horrenbeste gezurkerien aurrean ixilik gelditu... Abuztuaren 17rako Udal-plenora joateko, 2 herritarrek ("Herrialdeko" bat eta ni), baimena eskatu genuen... Baiezkoarekin joan ginen eta gai-zerrendaren 11. puntua

iristerakoan, alkateak ORDENO hitzarekin bien kanporatzea AGINDU zuen explikaziorik eman gabe... eta kanporatzen ari ginen... "y la secretaria tambien" entzun genuen, idazkariak hori ilegala zela azpimarratu arren. "Herrialde"koak gertaeraren erantzun publikoa eskatu zuten baita Udaleko EAkoei ere.. Bitartean, abuztuaren 19an, N.G.ko Mendi Departamentuko funtzionari bat ar-

txiboetan zegoela ikusirik, alkateak berriro ere ORDENO eta PROHIBO hitzekin kanporatzeko agindu zion idazkariari... eta atea giltzatu ondoren giltza hartu eta aldegin zuen.

Zein da explikazioa? Zer izkutatu nahi du? Alkateak EAkoen adostasunarekin egiten ari den HARROKERIA eta INJUSTIZIAK noiz arte segitu behar dute? Artxiboetan Kontzejuko dokumentazioak ere daudenez, Kontzejuko Lehen-

dakariak gogorki salatu zuen ekintza eta Elizondoko notarioarekin atea itxita zegoela jaso zuen akta notarial batez. Abuztuaren 29ko plenoan, EAkoak alkatearen alde azaldu ziren publikoki eta 17ko plenoko kanporatzeak inori min emateko asmorekin egin zuela zioen alkateak... eta 17ko akta sinatzeko idazkariaren bila ibili zela eta ez zuela aurkitu... alde egin zuela. Alkateak eta bere taldekoak eta

EAkoek... zer uste dute? Jendea beraien titere garela? orain kanpora, orain etorri... hau agintzen dizut, hau debekatzeko... Argi utzi zuen alkateak (bere taldekoak eta EAkoak ere) irailaren 3ko sesioan... erantzun garbirik eman ezin... Norbera defenditzeko, bertzeak atakatu eta gezurrak botatz. Batzuk engainatu dituzte baina ez guztioi, eta "egia" kaleratu arte segituko dugu.

Blanka Bertiz

Ostatu
Jatetxea  • Eguneko menuak
• Kazuelak eta pintxoak

BETi - JAi


Askain 1, Tfnoa: 63 08 10 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...
SEKULAKO AUKERA PREZIO ETA KALITATEAN
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92

SAROBEn okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

MANUEL LANTZ
KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA
Errenta deklarazioak, BEZ edo
IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.
Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - BERA

LA
MUSIKA DENDA
BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinu,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

“Caucho Industrial Amabi SL”ko langileak huelgan daude konponbidea bilatu nahirik

ROMAN HARRIBILAGA

Zalaingo indutrialdean kokaturik dagoen “Caucho industrial Amabi SL”ko langileak, grebari ekin diote joan den irailaren 2az geroztik dauzkaten arazoei konponbideren bat bilatu asmoz. 17 langile ditu enpresa honek horietatik 7 Berakoak. “Amabi SL” ordain etenduran aurkitzen da eta, dirudienez, zor zaieten uztaila eta abuztuko soldatak ordaintzeko eta jarritako zigorrak kentzeko eskaria egiteko jo dute grebara langileek. Hauek diotenez, beldurra omen diote lantegiko industri ekoizpena hiltzen uztea eta enpresa bertzetik tokiren batetan eraikitzea edota materiala saltzea, irabaziekin gelditzeko, ez ote den ari zuzendaritza.



Guardia zibila etorri arren, moldeak ateratzea galerazi zuten langileek



Langileak lantegi aintzinean pasatzen dituzte 24 orduak

Konpontzeko saialdiak Arazoari konponbideren bat bilatzeko zenbait saialdi egin dituzte langileek eta zuzendaritzak, adostasun egintza bat barne Iruñan, baina emaitzarik gabe,

enpresak zigorrak kentzeko agindua ematen bazuen ere soldaten ordainketa ez bait zuen segurtatzen. Bere aldetik zuzendaritzak lanpostuen utziera eta mate-

rialaren hondaketa leporatzen die langileei zigor espedienteak irekitzeko.

24 orduak zai Langileek diotenez, joan den irailaren 9an lan-

tegiko moldeak ateratzen saiatu omen zen zuzendaritza, ekintza langileek berek galeraziz. Zuzendaritzak Guardia Zibila deitu zuen baina ezin izan zuen galerazi langileen ekintza.

Geroztik langileek eguneko 24 orduak daude lantegi zai, honen desmatelamendua egin ez dadin.

Pilar Txueka idazkari berria

Pilar Txueka Intxusta joan den irailaren 16an aukeratua izan zen behin behineko udal-idazkari bezala, 3 hautagaiekin batera azterketak egin ondoren eta Urriaren 1an hasiko da lanean

Futbol zelaia estreinatzeaz

Zenbait aste badira futbol zelai berria eta bere aldagela eta zerbitzuak eginak daudela. Hala ere, oraindik ez dira erabiliak izan, teknikariaren informea Udalak ezagutu arte, gero erabiltzeko baimena emateko. Belarraren zainak noiz dauden indartuak jakin behar omen da.

B RADIO BIDASOA expert
Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77
BERA

**3 urtetarako garantia eta
36 hilabete ordaintzeko.
Nork eskeintzen du gehiago?**

LESAKA

Sanferminetako txoznei buruzko polemika piztu da


EAKoek ez zuten aurreko plenoaren akta sinatu, testuarekin konforme ez izateagatik

AITOR AROZENA

Sanferminak aspaldi pasatu baziren ere, oraindik piztua jarraitzen du Alondigaren azpian eta aparkaderoan paratu ziren txoznak direla eta sortu den polemika.

Azken plenoan, EAKo zinegotziek ez zuten nahi izan aurreko bilkuraren akta sinatu, bertan jartzen zuenarekin ez bait zeuden ados.

Gogoratu behar da aintzineko bilkura horretan, EAKo zinegotzi batek "Sanferminetan 3 txozna jarri ziren, nahiz eta udalak hauek jartzeko baime-na ukatu" adierazi zuen. Horregatik, honi buruz zer egin zuen galdetu zion alkateari. Honek, "txoznak ikusitakoan, Lesakako Osasun Publikoaren arduradunei osasun baldintzei buruzko informea eskatu nien, eta hau positiboa izan



Udazkenan sartu arren, oraindik iristen zaizkigu Sanferminetako txinpartak. Arazoa: txoznak...

zen, nere harri durarako" erantzun zuen eta ondoren guttienezko betebeharrak ez zituela betetzen erran zion EAKo zinegotziari, "aurreko aktak irakurri ez dituela erakusten baitu".

Azken plenoan berriz, hitz gogorak bota zioten elkarri, alkateak "EAKoak Udalean protagonismo pertsonala bilatzen dute" erran bait zuen eta EAKo

ordezkariak, "Alkateak bere erantzunean, berrir ere gertatutako en manipula-zioa egin du, izan ere ekainaren 21ean Kultur Komisioak egindako bileran, txoznak jartzeko eskakizunei uko egiteko arrazoi ugari eman ziren, hauen artean Ostalaritza elkartearen idatzi bat" erantzun zion, aintzineko akta sinatzeari uko eginez.

W ttipi-flash

□ San Fermin jubila-tuen elkartekoak 15 egu-nez izanen dira (Urriaren 1etik 15era) Benidorren, Vista Blanca hotolean.

□ Bakioko abesbatza izan genuen kantari, hilaren 21ean.

□ «Miguel Elizalde» memoriala burutuko da hilaren 28an, Basurde elkar-teak antolatuta txirrindula-ri bikaina izandakoaren omenez.

□ Yoga ikastaroetan izen emateko epea hilaren 26an bukatzen da. Lekua: Herriko Etxean.

□ 15 haur hasi dira le-hen urtez ikasten, 9 Tanti-rumairu ikastolan eta 6 Irain eskolan (4 euskal adarrean eta 2 erdal ada-rrean).

□ Bortzirietako bertso eskolak ikastaro berria ha-siko du. Informazioa jaso-tzeko deitu 637891 tfnora.

ARRANO



OSTATUA
Legarrea - LESAKA

IRUBIDE

OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

Dene

LENTZERIA
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA

EROSLE

Tfnoa: 63 72 64 - LESAKA

EROSKIn zegoen jenero eta promozio berdinarekin
eta... Deskuentoak sozioentzat



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Uso ehizarako postuen subastan 5 milioi pezeta eta gehiago

Gordeleku edo parapetu postuarengatik, 692.000 pezeta ordaindu ziren

PELLO APEZETXEA

22 postu sartu dira buruilaren 7ko enkante edo subastan. Beraietatik garestiena, sareetako lehenbizikoa, 190.000 pezetatan; merkeenak, 15.000tan, milioi t'erdi denetara. Enkantean, ordea, ehizazaleek bero zeuden, saketak ongi hornituak, eta jo eta jo aritu ziren. Azkenean 5.025.000 pezeta Herriaren kutxara. Iazko enkanteak azken urteetako gorakadarik haundiena izan bazuen, -3.742.000 pezeta bilduz- aurtengoak ttikia utzi du hura. Gordeleku edo parapetu izeneko postua izan da nagusi ordaintzerakoan, 692.000 pezeta.



Agortarekin horrelako itxura tristea hartzen digu errekek. Hau Iriondo-ko presa azpia dugu. Eta itxura txarra ez dio ematen euri ez egiteak bakarrik, bere burua mantentzeko ere behar duena kentzen diotelako zentralek.

Maestra gehiago

Ikasle kopurua haunditu zaigu. Eskolaurrera sartu diren hiru urtetako haurrak 11 ditugu. Bosgarren eta seigarrengoen gelan 19

ikasle badira. Hori dela-ta, maestra bat gehiago dugu aurtun, Igantzi eta Etxalarren erdizka ariko dena. Lan horretan ariko dena, herritarra dugu, Emma

Sanzberro. Bertzalde, Luzia Irazoki etorri ez denez, bertze maestra berria dugu, Ana Jose Irigoien, Iruñean bizi den igantziarra.

Jubilatuen biltokiari buruzko akordioak

Larraburuko Jubilatuen biltokiko horniduraren erdia Udalak ordaintzea erabaki du, Nafarroako Gobernuak bertze erdia bere gain hartuz. Hemendik aintzineratzen dena, telefonoa, argia eta beroketaren gastua Elkartearen gain gelditu dira. Eta inoiz Elkartek lekua utziko balu edo desagertuko balitz, tokia nahiz tresna eta hornidura guztia Udalaren eskuetara itzuliko litzateke, eman bezain baldintza egokitan.

IGANTZI

Piedade Eguna pasatuta gainean ditugu San Migelak

Biltokik antolatutako Mountain-bike ibilbidea eta pala txapelketa arrakastaz burutu dira

PATRIZIA ARBURUA

Irailaren 8an, Piedade egunean, auzo honetakoek bere ohizko besta ospatu zuten. Goizean meza izan zen hildako auzotarren omenez eta ondoren, buruhaundi eta erraldoiak. Eguerdian auzotarren bazkaria izan zen Meakaundin eta akautzeko haurrentzat

jokoak. Aurtengoan ere partaidetza ugaria izan da.

Mountain-bike ibilbidea

Igantziako Biltokik I. Mountain-bike ibilbidea antolatu zuen irailaren 8rako. 74 partaide abiatu ziren, denak ailegatu ez ziren arren.

Haundietan irabazlea

Bidaurreta irundarra izan zen eta ttikietan berriz, Arandia. Lehenengo igantziarra, J. Txoperena izan zen.

Batzuk buelta hagitz polita zela erran zuten baina bertze batzuk gogorregizat jo zuten. Izen ematekin batera partaideek kamiseta bat hartu zuten antolatzaileen eskutik eta

buelta akautzean luntxa izan zuten Biltokian. Iniziatiba polita izan da Biltokiren aldetik, hain modan dagoen kirola Igantzira ekartzea.



(bertze aldean segitzen du)

Badatoz San Migelak

Irailan zehar ospatu ditugun ekintza guzti hauekin (txapelketak, ibilbidea, Piedade eta Bentetako bes-tak...) igantziarrok ederki girotzeko aukera izan dugu.

Orain San Migelak gainean ditugu eta eguraldi ona egitea bertzerik ez dugu espero.

Honez gero, ongi pasatu eta gutti gastatu!



Pala txapelketa

Igantziako Biltokik antolatutako pala txapelketa bukatu da dagoeneko.

Aurtengo irabazleak hauek izan dira:

1. mailan, J.R. Etxeberria eta J.M. Matxikote eta 2. mailan berriz, I. Telletxea eta J.J. Telletxea.

Txapelketa burutze-ko afari ederra ospatu zen Biltokin eta sariak eman ondoren, Hondarribia nahastera joan ziren parte hartzaileak.

ARANTZA

68 haurrek eman diote hasiera 91-92 ikasturteari

6 irakasle izanen dituzte, iaz baino bat gehiago

JON LARRETxea

Inoiz ez bezala, aurtengoan hiru urtetik gorako haur guztiak eskolarizatu dira, orain artio bazi- ren lau urterekin eta bortzekin hasten zirenak.

Aurtengoan 6 haur berri hasi dira, 8. maila bukatuko dutenak 7 direlarik.

Sei irakasle izanen dituzte euren zerbitzura, lehengo urteetan baino bat gehiago; hauetatik bortz bertakoak dira: Juana, Gabina, Jose Ramón, Ixabel eta Junkal Urdingobordakoa. Bestea, aurtentorri da, Josetxo Arribillaga Leitzakoa. Zenbait obra ere



Arantzako eskolako haurrak

egin dira, patioko eskaile- rak kendu, ateak moldatu, eta batez ere gimnasioa ederki txukundu.

□ **Martineneko** Juani-

ta monja herriko alaba kuttuna izendatua izan zen Irailaren 15ean, hasiera batean bestetan egin behar bazen ere ekitalditxo hau.

Meza nagusiaren ondoren, plazan herriko alaba kuttuna izendatzen zuen plaka eskuratu zuen Juan Miguel Almandoz alkateak emanda. Ondotik, Kontxita Etxerrekoak bere lagunek eginiko oparia eman zion, Vizente Arozenak berriz hitz batzuk egin zituen Juanitaren bizitza go-raipatuz. Jendea erruz bildu zen ekitaldira.

□ **Berrizauneko** kru- zean Arantza jarri ordez Aranatz jartzen duela eta, bigarren aldiz protesta azaldu dio udalak Nafar Gobernuari, akatsa zuzen dezan.

ATERPE
jatetxea

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak alokatzen ditugu
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

BOTXO
ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

71 neska-mutiko aurten eskolan

Hasi dira saihesbidearen lanak

PATXI PETRIRENA

Iazko haur kopuru berbera izanen da aurten Sunbillako eskolan, iaz ikasturte hasieran Ikastolak hartzen zituen hiru urtekoak kontutan hartuz. Hirutanogeitameka izanen dira denetara, sei irakasleekin. Mailaka, honela banatzen dira. **Hiru urtekoak:** 7; **Eskolaurrea-1:** 7; **Eskolaurrea-2:** 10; **1. maila:** 3; **2. maila:** 11; **3. maila:** 10; **4. maila:** 5; **5. maila:** 7; **6. maila:** 11. Denak euskaraz egiten ari dira ikasketak.

Bertzalde, zazpigarren maila egitera Doneztebera joan direnak 7 dira aurten.



☐ Saihesbideko lanak hasi dira. Lur mugitzen hasiak dira makinak eta tunelaren sarrera izan behar

duen aldean mendi mazela kentzen.

☐ Diputazioak antolatutako ikastaroetan (lehen

EPA deitzen zena) parte hartzeko ez du inork izenik eman Sunbillan.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA

Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN ARON honako hauetan gara adituak:

- ☒ Industri Aseguru Konbinatuan
- ☒ Bizitza Aseguruetan
- ☒ Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- ☒ Etxe Aseguru Integralean
- ☒ Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpainia on baten balioa.



Carlos III.a Etorbidea, 14
Tlfnoa.: 22 56 66 Fax: 22 10 49
31002 IRUÑA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g
Tlfnoa.: 61 51 19
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea
(Ajentea)

ITUREN

Auzolana egin zen elizaraino ura eta argia eramateko

Urriroarekin batera prest daude ehiztariak usoak botatzen hasteko

IBAN ISASI

Duela larunbata batzu auzolana egin zen Aurtizko auzotikan elizaraino zanja bat egiteko. Zanja hori, proiektuan agertzen den bezala, argiteri publiko eta elizara sare berriko argia eramateko da. Bide batez zanja hau elizaraino ura eramateko aprobetxatuko da.

Urriroa heldu dela eta...

Urriroa heldu dela eta Iturenen ere ehiztariak mugitzen hasi dira. Amez-tiko postuak ere konpon-tzen hasiak dira Urriaren 4a arte bait daukate epea hauek moldatzeko.



Duela larunbata batzuk egindako auzolanari esker, sare berriko argia ailegatuko da herriko elizara

☐ Irailaren 7an egin-dako bileran Isidro Bazta-rrika aukeratua izan zen, iaz bezala, Ituren eta Elgo-

rriagako "Mendaur" elkar-tearen presidente, orduan ere bikoteak osatu ziren eta ostatueta dauden zerren-

detan ikusgai daude. Beraz dena ia prest dago uso gai-soak zerutik lurrera bota-tzeko.

BEATRIZ

ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ☐ Solarium-a
- ☐ Ileapaindegirako produktuen salmenta
- ☐ Ordua eskatu



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



ARROPA ETA OPARI DENDA

Tfnoa: 451540
Mercaderes 9
DONEZTEBE



Zure gustoko arropak
fementxe
Udazkeneko moda

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91

Nerea Cinetakoa
San Migel 2, DONEZTEBE

Herriko bestak ospatuko dira Mikel Deunaren ohoretan

Irailaren 27 an (ostirala) hasita, Urriaren bata arte luzatuko dira

Irailaren 27an (ostirala), arratsaldeko 8etan botako den txupinazoarekin emanen zaio hasiera aurtengo beste. Ondoren baztan zopak izanen dira eta afalondoan sagardodantza animatzen den guziendako. Dantzaldia gaueko 12etatik goizaldeko 3etara izanen da, akordioiarekin.

Larunbata 28, haurren eguna:

Goizeko 11etan, XII. mus txapelketaren hasiera. 1etan, gazteen artean aizkora eta laister frogak.

4,30etan haur jokoak eta ondoren txokolatada. Arratsaldean dantzaldia eta gaueko 12,30etatik goizaldera gau-pasa Haritza tal-



deareekin. Azken aldera, Bananadantza eta ondoren zingar jatea.

Igandea, 29, Mikel Goiangeruaren eguna:
12etan meza nagusia.

1etan, eskulan erakusketa, trikitixak alaiturik. Ondoren, luntx herrikoia. 5etan herri kirolak.

Arratsaldean eta gauean, dantzaldia Izotz taldeare-

kin.

Astelehena, irailak 30:

11etan mus txapelketaren semifinala. 12etan pilota partiduak haurren artean. Arratsaldean, gazta probaketa etxetik etxera eta hoberenari saria. Arratsaldean eta gauean, dantzaldia Izotz taldearekin. Mozerodantza izanen da.

Asteartea, Urriak 1:

11etan mus txapelketaren finala. Ondotik aizkora apustua, zaharrak gazteen kontra. 2etan herri bazkaria Modestorekin alaitua. Bazkalondoan sokatira ezkondu eta ezkongabeen artean. Arratsaldean eta gauean dantzaldia Modestorekin eta besten agurra.

ZALAIN JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

ZALAIN AUZOA, TFNOA: 63 11 06

BERA

KOXXKONTA

**Sagardotegia
Erretegia**

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)



Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Irurritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

DONEZTEBE

Malerrekan, euskara ikasturteari hasiera emateko prest

Matrikula epea urriaren 8a arte zabalik

TXEMA ALDABE

Malerrekako Mendaurre Euskaltegia (IKA)tik ezagutzera eman zaigunez, "kurtso berriari hasiera emateko prest" omen dau-de. Ohar berean, ikastaroak goizez eta arratsaldean antolatuko direla aipatzen da; bai euskalduntzekoak zein alfabetatzekoak eta EGA-rakoak. Bertzalde, Donezteben ez ezik, inguruko herrietan ere taldeak sortzen ahaleginduko omen dira "jendea herritik mugiarazi gabe bertan ikas dezaten". Norbaitek informazio gehiagorik nahiko balu, 451555 tfnora dei dezake.

Ingeles irakaslearen zai eskolan

San Miguel Eskolako seigarren kurtsoa ikasleek gurasoak, ingeles irakaslea lehenbailehen jartzea eskatu diote berriro ere ad-



ministrazioari. Bitartean, guraso hauek ezagutzera eman dutenez, "ez ditugu gure umeak frantzes klase-
ra bidaliko eta egoera hau, ahalik eta azkarren erre-mediatzea eskatzen dugu".

Eskola asteburutan ere zainduko

Asteburutan eskolako pilotalekua eta gimnasioaren gestioa udalak definitiboki finkatu artean, aste-gunez lan horretan aritzen

den kontserjeari agindu zaio zeregin hori, 4.000 pztatako sariaren truk.

Herrilanetan aritzeko

Luis Andueza, Jose M^a Olazar, Jose M^a Anzizar, Jose M^a Elizondo eta Angel M^a Iribarren, argiak, ur-sarea eta saneamendu lanetan aritzeko kontratatatuak izan dira berriki. Kontra-tuok, Doneztebeko udala eta INEMen arteko kome-

nioaren bitartez gauzatuko dira eta 3 hilabeteko irau-pena izanen dute.

Norma Subsidiarioak definitiboki onartuak

Azkeneko aldaketak onartu ondoren, behin be-tiko onartu dira eta Nafarroako Aldizkari Ofizia-lean argitaratzeko zai dau-de.

ZUBIETA

Urriaren 5ean gau-pasa

Afari herrikoia, bertsolariak eta dantzaldia

JUAINAS


Zubietako berrien eza

Deus ez omen da gerta-tzen herri txar honetan,

beste herrikoek pentsa-tuko... Pentsa dezatela nahi dutena, baina, izaten dena izana oraingo honetan berriemaileen porrota dugu berria. Moldatuko ote dira

Jon eta Jaione, Jaione eta Jon? Momentuz zera esan behar, atzendu gabe. Urriaren 5ean Gau-Pasa dagoela, gazteak antolatu-rik. Afari herrikoiarekin

emanen zaio hasiera, ber-tsolariak egiten dute saioa Mendizabal eta Sarasua eta gau-pasa, 12etatik aintzi-na TTURRUTAK Taldearekin.



IGANTZI

**Irailak 27, 28, 29 eta
30ean**

Ortzirala, Irailak 27

Arratsaldeko 8etan, txupinazoa botako da aurtengo San Migel beste hasiera emanez.

Gaueko 12etatik goizaldeko 4etara, dantzaldia frontoiko plazan, ARKAITZ taldearekin.

Larunbata 28, San Migel bezpera

Goizeko 10,30etan plater tiraketa.

11,30 etan Gymkana.

Arratsaldeko 4,30etan, «Miguel Elizalde memoriale» jubententzako txirrindula laisterketa. Ibilbidea: Lesaka-Etxalar-Lesaka-Bera-Lesaka-Igantzi-Igantzi benta-Lesaka-Bera-Lesaka-Igantzi benta-Igantzi (75 Km.).

5etan Nafaroako soka-tira semifinalak, 600 kilotako pi-

GUILLERMO TXOPERENA

STIHL eta JON SERED

Motozerra eta desbrozadorak

ALFA

Ordeñadora eta segadorak

VALDAPANA

traktoreak

Konponketa eta salmenta

IGANTZI

Tfnoa: 63 79 95



suan.

7etan, "Los Incansables" txaranga ibiliko da karrikaz karrika.

Gaueko 12etan, gaupasa MINXORIAK taldearekin.

Igandea, Irailak 29, San Migel Eguna
Goizeko 11,30etan Meza Nagusia.
12,30etan, "Volantes de Otxagabia" dantza taldearen saioa plazan. **Arratsaldeko 4,30etan**, XII. Artzai Txakur Txapelketa Meakaundiko zelaian.

7etan, bertso jaialdia: Bertsolariak; Anjel Mari Peñagarikano, Mañukorta, Andoni Egaña eta Xebastian Lizaso. Gai-jartzaila; Manolo Arozena.

Arratseko 9etan, dantzaldia plazan GAUBELA taldearekin.

Gaueko 12,30etan, dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Astlehena, Irailaren 30:

Egun guztian zehar haurrentzat jokoak, gaztelu haizatuak...

Goizeko 11etan, herriko gazteen artean pilota partiduak.

12etan, helduen pilota partiduak afizonatuen artean: Goñi-Beloki, Lujanbio-Balerdiren aurka.

Eguerdiko 2etan, Zikiro jatea.

Arratsaldeko 4,30etan, profesionalen arteko pala partiduak.

7etan, poteo herrikoia akordiolariekin.

Gaueko 10etan EGAN taldearekin dantzaldia.



BI - BIDE
Ostatu - Janaridenda

BESTA ON BATZU
OPA DIZKIZUEGU

Tfnoa: 63 72 78
IGANTZI



JATETXEA

LA VILLA

Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu



Tfnoa: 63 72 90

IGANTZI



Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
Igantziar eta bisitari guziei

DONEZTEBE

(San Migel auzoa)

Irailak 28 eta 29an

Larunbata, Irailak 28

12etan, txupinazoa akordeoiak alaiturik.

Arratsaldeko 4etan, "San Miguel" VII. Mila. Haur jolasak eta gero txokolatada. Argazki erakusketa, parte hartzea libre delarik. **Gaueko 10etan**, pelikula entretenigarri bat, kanpoan botata. Proiekzio bitartean, haurrentzako sorpresa bat.. Gauerdiko 12etan, dantzaldia, Ramontxo "Martxosoaren" ardurapean.

Igandea 29, San Migel Eguna

Goizeko 11,30etan Meza Nagusia San Migelen ohorez. Ondoren, ohizko pastatxoak eta ardo gozoa.

12,30 etan Erraldoiak, buruhaundiak eta "Agrupación Musical Bidasoa" ibiliko dira auzoan zehar.

2,30etan, Herri Bazkaria (txartelak biltzen dira ohizko lekuetan).

Arratsaldeko 7etan Dantza, Ramontxo martxosoaren ardurapean.

Gaueko 10,30etan, Bestaren amaiera.



Zabalduta dira plaza inguru eta ostatu xoko...

OLHAIN ELKARTEA

Irailaren 7tik 11rat iragan ziren Sarako bestak. Usaian bezalako arrakasta ukan zuten aroaren aldetik aldetik arazo batzu sortu baziren ere. Ohidurari jarraikiz ikusi ahal izan ditugu bai pilota partida, indar joko, baita ere dantzak. Igande arratsaldean ospatu zen ahate jokoa, Erdi Arotik hunat Lapurdiko herri batzuetan famatua den joko. Aurten ere, hamar bat gaztekin parte hartu dute zaldiz. Aritu dira bakotxa bere aldiaren ahateeri lepoa moztu nahiz eta askok bizpahiru ate ereman dituzte. Aupa mutilak eta luzaz jarrai dezatela trenpu honean. Agian heldu den urtean,



Erdi Arotik hunat famatua den ahate jokoa hamar bat gaztekin parte hartu zuten zaldiz

aroak lagundurik ekitaldi guztiak ospatuko dira.

Erretretatuena ateraldia

Herriko etxeak gonbidaturik Baigorritar ateraldia ukan zuten Sarako

erretretatuak Irailaren 25ean. Autobusez joan ziren Baigorri eskualderat, "Manexenia" jatetxean bazkaltzeko; Arrosan gaindi ibili ondoan. Erran behar, usaiako arrakasta

ukan zuela bidai honek eta ongi iragan zutela.

Kirol solas

Joan den igandean Sarako rugby taldeak "Honneur" mailan erdietsi du emaitza on bat irabaziz Donapaleuko taldearen aurka 22 eta 14. Aldiz, "Reserve"-ak edo Sarako bigarren taldeak galdu zuen Donapaleutarraren aurka.

Ez ahantzi...

Agorril ondarrean Añi-mainea deitu ostatu berriz ere ideki dute. Zuzendari berria Jean Louis Oronoz "Akellarre" izengoitiak ezagutua dela eta ostatu Akellarre deitua izan da. Bizi luze bat ostatuari eta lan ainitz desiratzen diogu gazte honi.

MANOLO TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guereñdiain

SARA - LAPURDI

trebeki

jostailuak - eskulanak

Sebastian Errazu 1
(943) 61 83 97 - IRUN.

Erakusten dugu:

- ❖ Makrame
- ❖ Tridimensional
- ❖ Saskigintza
- ❖ Tela
- ❖ Eskaiola margotu
- ❖ "miga de pan"

ITXASO JATETXEA

Menua eta Karta

Ibardingoa Gaina - BERA

LEITZA

Baztan - Bidasoa - Leitzaldeko

Txirrindularien azken pesta

ANTTON ERKIZIA

Leitzako, eta Baztan, Erreka eta Bidasoa aldeko Txirrindulari eskolak elkartu ziren hemen, lehen-go larunbatean, aurtengo urtealdiaren azken pesta elkarrekin egin asmoz.

“IX. Erregularitasun Saria” aitzaki bezala hartuz, esandako zonaldeko txirrindulari hasberriak, alebinak, haurrak eta beren arduradunak bildu ziren, saioaren ondoren urteko sari banaketa eginaz.

Leitzeko Txirrindulari eskolak bost bat urte dauzka sortu zenetik, “Guratz-Mendi” elkartearen itzalean, eta «Egoki» etxea duela sponsor. Jexus Mari Zabaletak sortu zuen, eta berak eta Super-ek eusten diote zutik, guraso bakan batzuren laguntzaz.

Hasiera hartan 26 txi-

rrindulari ziren (gauza berria!), eta gaur egun 10-11 ari dira txiki mailetan eta 9 bat kadetetan.

Zipi-zapa, ti-ta:

□ 143 leitzarrek eman dute izena, EPA edo helduen ikastaroetan. 143, alajaina!. Jostura ikastaroan askok (lau talde), eta ingelesan, sukaldaritzan, zeramikan, pelukeria eta estetikan... ere.

□ Elias Alonso da aurtengoan Aurrera ekipoaren entrenatzailea, eta Juantxo Larraia, jubeniletan.

□ “Graduado Escolar” atera nahi dutenek, eta euskaraz gainera, badago egiterik, eta egon Udalako Euskara zerbitzukoekin.

□ Zabor biltzea, su-bastara aterako du Larraun-Leitzarango Mankomunitateak, horrela lan hortan



Lana azkarki, eta esker on gutxi, Leitzeko txirrindulari eskolan ere

ari diren Leitzeko Udala-ren langileak beren lanetara itzuliz. Irurzun eta Bete-lu Mankomunitatean sartuko diren edo, dabilta.

□ Etxez-etxeko laguntza eskeiniko zaie, ezindu edo premian aurkitzen diren pertsona bakarrei edo

familiei. Lan hortarako, hiru lanpostu betetzeko deialdia egin du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

□ Aizan mendiko larreak irauli eta hobetzea baserritarrek erabakiko dute. Lehengo larunbatean ziren biltzekoak hortaz.



Sanmigelak Uitzin; azken aurrekoak

Aste buru honetan Sanmigelak Uitzin... pesta politak dira bueltatxo bat egin; azkenak direlako gozatutzen jakin urtea badoala, hori geldi ezin.


Independentziaren aldeko mozioa onartu zuen Udalak

6 puntutako idatzia ahobatez onartu zuten zinegotzi guztiak

ESTEBAN AROZENA

Azken aste hauetan toki askotan gertatzen ari den bezela, Euskalerrriaren independentziaren aldeko adierazpena onartu zuen ahobatez udalak irailaren 14an burutu zen pleno berezi batean, mozioa Herri Batasunak aurkeztua zelarik.

Independentziaren aldeko akordioaz gain, beste 6 puntu hauekin ere ados egon ziren zinegotzi guztiak: Euskalerrriari dago-kion autodeterminazio eskubidea aldarrikatzea eta



Plenoa bukatu orduko ikurriña jarri zuen Miguel Jose Lekuona alkateak udaletxeko balkoi nagusian.

Gobernu espainol eta frantsesari esijitzea Hego eta Ipar Euskalerrriaren zatiketa eta integrazioa inda-

rrez inposatzeari utz diezaiotela konponbide demokratiko lortuz; udalaren aurrekaldean ikurriña go-

ratu eta bertan mantentzea; Euskalerrriaren askatasuna eta eskubideak errespetatzen ez dituzten sinboloak eta ikurrak kentzea; beren independentzia aldarrikatu duten edota beren subiranotasun nazionalaren alde borrokatzen duten nazioak ezagutzea eta geure alkartasuna adieraztea; herriko elkarte guztiei akordio hau entregatzea eta beren adostasuna eskatzea; azkenik, urriaren 12an independentziaren alde Bilbon burutuko den manifestaldira deitu zituen udalak goizuetar guztiak.

Eskola berritzen ari da

Azkeneko gertaeren kronika

JUANA MARI

Orain dela hilabete batzuk hasi ziren. Proiektuan, oso itxura polita dauka eta bi ikasgela, komunak, kalefakzio zentrala eta gela haundi bat sotuan gimnasio bezala erabiltzeko. Hau, umeentzat ez ezik, edozein aresoarrek erabiltzeko ere baliagarri izanen litzateke.

Obrak direla eta, umeek eta beren andereñoek beste lokal batetara joan beharra dute.

Bi aste bakarrik egon dira; nahiko juxtu, ez to-

kiarengatik bakarrik, baita zegoen kondizioengatik ere. Hori zela eta, Guraso Elkarteak bildu eta zera erabaki zuen: "...*Batetik, gela horiek kondizio hobegotan jartzerik baden edo ez eskatzea udalari eta bestetik, paretak pintatu, argiak jarri eta garratzitsuen den komunak saneatzearena egiterik bazuen*"...

Hau, kurtsoari hasiera eman baino lehen. Udalak ez du erantzunik eman bainan jakin denez, gastu haundiak direla esan omen



du eta elkarte bati bere lokalak eskatzea pentsatu zuen. Horretarako, elkarte horretako sozioek bilera egin zuten eta ahobatez lokala uzteko obligaziorik ez dutela erabaki zuten.

Udalak honen berri izan duenean, lehengo gelak prestatzen hasi da kondizio hoberenak izan ditzaten. Arazo guzi hauek bi aste atzeratu dute Aresoko umeek eskolan hastea.

BAZTAN

AEK-k zenbait kultur ekintza antolatu ditu

Maurizio Elizalderi urrezko domina eman zion Euskalerriko Txistulari Elkarteak


JOSEBA I.

AEKk antolatu ditu kultur ekintzen artean, Irailaren 25ean, asteazkena, arratsaldeko 8etan Kultur Etxean hitzaldia, "Euskatzaleak eta aber-tzaleak Baztanen, 1931-45 tartean". Hizlaria: Josu Txueka. **Irailaren 27an**, ortzirala, arratsaldeko 7,30etan, kultur etxean, kontzertua, Beasaingo Akordeoi orkestarekin. **Irailak 28**, larunbata, goizeko 9etan, mendi txirrindula martxa. 13,30etan herri bazkaria. **Irailak 29**, igandea, goizeko 11etan, Bagordiko bidean Baztango III. Goitibera jaitsiera.

Transmisio kanpaina ere hilabete honen erditik urriaren erdiraino izanen da eta Baztango AEKk matrikulatzeko epea zabalik du honez gero Baztanen.

Ikasturtea hastear

Lekarotz, Nekazari eta Lanbide ikastetxean, ikasturtea hasteko prest daude. Lekarotzen berrikuntza izan dira instalakuntzetan. Batez ere elektrizitatean, baita ere areto batzuk be-



Europako elkarteak heldu dela eta Baztango behi batzuk erreibindikazioak egiten hasiak ditugu. Beraien eskaera, lehendabiziko pisuetan (terraza eta guzi) bizitzera da. Nagusiari galdetu zaitzaionean ea non jaten duten, «komedorean noski», erantzun omen zuen. Ez dakigu behiek eginbeharrak komunean egiten dituzten edo ez. Nekazariak erne, zuen behiak hori ikasten badute.

rritu dituzte eta berogailua erabat berritu dute. Denerat, 60 milioitik gora gastatu dituzte Nafarroako Gobernuako.

Bestak

Elbeteko bestak gan dira eta urtero bezala animazio handia izan da. Beren biztanle kopurua 10 aldiz igotzen da egunotan. Amaiurren, 19 eta 20an errebestak izan dituzte herri kirol eta zikiro jatearekin. Arizkungo errebestak, berriz, 28 eta 29an izanen dira. Ondoren Gartzain-

goak heldu dire, Urriaren 12an, aintzineratu bait dituzte San Martinetatik egun hortarat.

Maurizio Elizalderi omenaldia

Euskalerriko Txistulari Elkarteak eman zion Maurizio Elizalderi urrezko domina Arizkun Irailaren 22an. Omenaldi honetan meza, txistulariak, gaiteroak, herri bazkaria, bertsolariak, etabar... izan genituen

Kantu bilduma

Iturralde aitasemeek

kantu bilduma bat argitaratu dute, hemengo mutil dantza eta jostadantzekin. Orain arte argitu gabe zegoen hemengo folklorea oso osorik.

Kirola

Baztan futbol taldea oso ongi hasi da denboraldian, bi partiduak irabaziz. Badirudi sasoi onean daudela, ongi segi dezatela.

Ehiztari Elkarteak...

Amaiurren duen granja moldatzeko, auzolanean ari dira.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udazkeneko moda, opariak, telak

Aurten ere berandu hasi dira haurrak eskolan

MARGARI eta KORO

Herriko haurrak hasi dire azkenean eskolarat. Irailaren 9an hasteko partez, toki guztietan bezala, hemen ere aste bat beranduago izan dute hasiera, maistrurik ez zelakoz.

Gurasoak nahiko hase-re eta nardatuak dire eta arrazoinakin, urteroko afera baita: alde batetik kurtso hasieran ez da hunat etortzeko "boluntariorik" (herri ttikia dela, Iruñetik urrun...), iduri denez baztuk nahiago dute paroan

sartu ezenez toki huntarat etorri. Eta bertze aldetik urtero ere maistru diferentek dira eta hau txarra da, batez ere haurrendakoz. Gezurra dirudi, hainbertze maistru paroan eta gu hemen, ezin eskolak hasi haien faltan.

□ Irailaren 8an ospatu zen Javier Amorena zenaren lehendabiziko urte mugako meza, aldi gutitan ikusi dugu eliza hain beteta. Gazteak bere aldetik oraindik gogoan dutela erakutsi diote bere hilobian



plaka eder bat emanez (bertsoezin politago batez).

Berruet eta casa Pacokoek bertze meza atera zuten.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

ESTHER LORADENDA

✿ Orain zabaltzen dugu
✿ larunbata eta igandetan irekia
Tfnoa: 58 09 71 - ARIZKUN

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU



Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO



«ZALDUBI»
SUKALDE
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

Etetik mugitu gabe ardoa
erosi nahi baduzu

- Botilatu eta botilatu gabea
- Markako ardoa...

deitu 45 32 66 Tfnoa.
AZPILKUETA

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu

ZUNZARREN Gestoria

✦ Garraiolari edo
transportista tituloa
ateratzeko kurtsoa.
Irakasle tituluak
Azterketa Azaroan

✦ Allianz Ras
Aseguruak

✦ Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93
Amaiur Gaztelua 2

31700 ELIZONDO

URDAZUBI

Zikiro jatea ospatu zen Beotxean

ALIZIA OLAIZOLA

Irailaren 13an arratsean zikiro - jatea ospatu zen Beotxean, Xebero Gala- regik antolatutik eta Larraintza, Landibar, Leorlas eta bertze tokietako gizonek gonbidatuz eta Zugarramurdiar batzuk barne. Denetara 40 lagun elkarre- ratu ziren, guti gora behe- ra. Andre eta herriko gazte batzuk baziren ere. Zugarramurdiko Sansineko Bartolo izan zen zikiro erretzailea, arras ongi prestaturik. 9etan hasi ziren afaltzen giro ederrean, Kontxi eta M^a Angelesek zerbitzatuz. Gauerdi alde- rat animazio haundia susmatzen zen Beotxeko kaskoan, goizaldeko 3ak artio iraunez besta honek.



Urdazubiko herria, Tejeria eta Iribere auzoekin

□ **Herriko apaiza**, don Justino egun batzuk pasatu ditu Burlatan, ejerzizio es- piritualak eginez. Aste ba-

terako joana zen baino eto- rri behar izan zuen, hil zi- relakoz bi gizon xahar. Bat Alkerdiko Lorenzo Fa-

goaga eta bertzea, Paulo Jaurena, mezak eta lur emateak don Justino jau- nak eginez.

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

LOZOTEGI - JAURENA



ITZEA 3, 630786 - BERA

Beran, pisua salgai

100 m² gehi 22 m²ko balkoia.

9.000.000. Tfnoa: 630 522.
Itzea 4, 1. Ezk. - BERA

Esquisaroi
jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013

ELIZONDO

FZ
FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

Zure argazkiak berehala errebelatuak eta gainera profesionalen kalitate eta kolorearekin
KONPARA ITZAZU!!

Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64

Masaia eta bizkortze ariketak

Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astelehenetik ortziralera, 15,30etatik 19,30etara

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - **BERA**

EZKONTZAK

Joseba Igarabide Huarte eta **Gabi Iparragirre Alzugarai**, Erratzu eta Arantzakoa, Uztailaren 13an.

Eduardo Bendoiro Maritorena eta **M^aRamirez Delicado**, Iruñea eta Lesakakoa, uztailaren 27an.

Miguel Angel Galarregi Iparrea eta **M^a Josefa Migelarena Gamio**, Elbetea eta Iruritakoa, abuztuaren 3an.

Alfredo Basterra Castillo eta **Carmen Gartxitorena Etxeberria**, Iruñakoa, abuztuaren 17an.

Jose Luis Migeltorena Organbide eta **M^a Carmen Etxenike Iribarren**, Arizkunkoa, abuztuaren 24ean.

Ignacio Agerrea eta **Begoña Jaurena Azkarraga**, Narbarte eta Lekarotzkoa, irailaren 7an.

Juan Jose Zozaia eta **M^a Carmen Eskudero**, Doneztebe eta Goizuetakoa, irailaren 14an.

Jesus M^a Del Campo eta **Ana M^a Etxeberria Elizalde**, Añorga eta Goizuetakoa, irailaren 14ean.

Jose Angel Huizi Perurena eta **M^a Paz Rayo Goñi**, Goizuetakoa eta Barañainakoa, irailaren 14an.

Luis Vicente Otin eta **M^a Dolores Zubiri Maia**, Leizakoa eta Anizkoa, abuztuaren 31an.

Bittori Dainciart eta **Pierre Etcheverry**, Zugarramurdi eta Sarakoa, irailaren 20an.

Isidro Lazaro Etxarren eta **Koro Ezkurra Zunzarren**, Iruñea eta Doneztebekoa, irailaren 7an.

JAIIOTZAK

Iban Etxart Iparragirre, Elizondon, Uztailaren 22an.

Unai Apeztegia Lasaga, Iruritan Uztailaren 25ean.

Jon Frias Iturria, Elizondon, Abuztuaren 6an.

Miguel Javier Agerrea Iribarren, Elizondon, Irailaren 2an.

Eñaut Jaunsaras Erkizia, Iruritan, Irailaren 4ean.

Sonia Iturbide Barandiain, Elizondon, Irailaren 6an.

Unai Iparragirre Oskoz, Arantzán, Abuztuaren 5ean.

David Loiarte Perurena, Goizuetan, Irailaren 7an.

Ainhoa San Miguel Agirre, Donezteben, Irailaren 13an.

HERIOTZAK

M^a Puy Caballero Fabo, Elizondon, Uztailaren 8an, 76 urte.

Miguel Mendiberri Arriada, Arraiotzen, Abuztuaren 16an, 60 urte.

Juana Iroz Goiena, Arizkunen, Abuztuaren 16an, 80 urte.

Vicente Bidart Azkarraga, Arizkunen, Abuztuaren 17an, 72 urte.

Juan Pedro Garmendia Irigoien, Elizondon, Abuztuaren 19an, 69 urte.

M^a Jesus Meoki Goienetxe, Amaiurren, abuztuaren 25an, 58 urte.

Venancia Aleman Maskotena, Amaiurren, abuztuaren 30ean, 64 urte.

Manuel Soria Martinez, Elizondon, Irailaren 3an, 52 urte.

Jose M^a Urrutia Galzagorri, Elizondon, Irailaren 4ean, 73 urte.

Bienvenida Alkain Arburu, Lekarotzen, Irailaren 7an, 89 urte.

Angel Oteiza Plaza, Elizondon, Irailaren 11an, 85 urte.

Elvira Garcia Arostegi, Elizondon, irailaren 10ean, 82 urte.

Jean Soudre, Saran, Irailaren 8an, 87 urte.

Micaela Elizalde Mutuberria, Eratsunen, Irailaren 14ean, 77 urte.

Lorenzo Fagoaga Etxenike, Urdazubín, Irailaren 17an, 87 urte.

Paulo Jaurena, Urdazubín, Irailaren 19an, 79 urte.

KAMINERO

OSTATUA

Beheko Plaza 1, Tfnoa: 637243 - **LESAKA**

ONIN

Agentzia

Albistur 53
Tfnoa: 637359
LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

36 baserri - hotel gure eskualdean

*Nafarroako Gobernuak bultzatutako agroturismoari heldu diote aurtengo udan
165 lagunei oporrak pasatzeko aukera emanez*

Jakina da gure baserriak
bizi duen egoera zaila:
produktu ezberdinen
prezio baxua dela, Euro-
pako Ekonomi Elkartea
dela...

Horregatik, baserritarrak
bide berriak bilatzen hasi
dira beraien bizia aintzi-
nera ateratzeko. Aukera
bat, dudarik gabe, agrotu-
rismo edo landaturis-
moarena dugu: normalean
hirietatik etorritako turis-
tei etxea (gehienetan oha-
tzea eta gosaria serbitza-
tuz) eskeintzea, alegia.
Horretarako, dirulaguntza
desberdinak lortu
daitezke, Nafarroako
Gobernuaren Turismo edo
Nekazaritza sailetik, baita
Udaletatik ere.

Programa honen ardu-
raduna den Patxi Tunonen
ustez, "emaitza oso ona
izan da eta guk eskeini di-
tzakeguna baino eskari ge-
hiago daude. Abuztuan %
100ean bete dira etxe guz-
tiak eta etxe gehiago ere
izanez gero beteko egingen

genituzkeen".

Hala ere, esperientzia
berrian parte hartu duten
zenbait baserrietako eritzia
ere bildu nahi izan dugu.
gure eskualdean aukera
ederra bait dago, guztira
36 etxe eta 165 lagun-
entzako oporlekua.

Normalean, 2 eta 6 la-
gunen artean izaten dira
etxe horietan. bertakoak
ohatzea eta gosaria eskein-
tzen dutelarik. Hauen ar-
tean aurkitzen da Eratsungo
Martunea baserria. Ber-
tako etxeoandreak, M^a
Carmen Descargak, adie-

razi digunez. "Sevilla,
Barcelona, eta horre-
lakoetatik etorri dira eta
oso gustora ibili dira orain
artirako. Normalean ez dira
aspertzen, alde batetik
bestera ibiltzen baitira.
Guk esaten diegu toki po-
litenak eta hara joaten



Erratzuko «Etxebeltzea» k 6 lagunendako tokiak egokitua dauka



Normalean gustora agertzen dira esperientzia honetan parte hartu duten baserritarrak

dire: Donostia, Hondarribia, Baztan aldera...". Herrian ongi hartuak izaten dira, "ostatura ateratzen direnean oso ongi kunplitzen dute beraiekin eta batzutan lagun onak egiten dira. Askotan, datorren urtean bueltatzeko eskatzen diete".

Bazkaria, afaria, sukaldea...?

Bertze zerbitzuak eskeintzen dituztenak ere badaude. Amaiurko Goiz-Argi etxeak, Elizondoko Beartzun auzoko Urruska eta Igantziko Berrizaun auzoko Bidalenea baserriek bezala, pentsio osoa eskeintzen du: "jendeari jateko baratzekoak eta gauza naturalak gustatzen zaizkio. Nahiz eta «pension completa» eskeini, gehienak gosalduta eta afaldu bakarrik egiten dute. Gu, Uztailan hasi ginen eta bi gela beren bainuekin egin genituen. Bizi garen etxetik aparte izatean intimidade bat ematen du eta kontent gaude" erraten digu M^a Jesus Irigoien, Goiz-Argi baserriko etxeokandreak.

Amaiurren bertan, Ale-manttonea baserrian sukaldea eskeintzen dute, "bertze sukalde berexia dugu eta ez da problemarik sortzen" erraten digu Juan Martin Alemanek. "Normalean, bazkaria eta afaria kanpoan egiten dute, baina ume ttipiekin etortzen direnak afaria ere beraien sukaldean egiten



Etxalarko «Domekenea», Bortzirietako 8 etxeetatik bat

dute".

9 lagun gehiago etxean

Erronkari bailaran 12 lagunentzako lekua eskeintzen duten etxeak badaude ere, gure eskualdean bi eta sei lagunentzako artean izaten dute tokia etxe bakoitzean, bataz bertze.

Hala ere, hiru salbuespen badaude, bata Areson (Erasonea) eta bertze biak Urdazubín; Tejeria auzoko Zelaitarnean 8 lagunentzako ohatzea eta gosaria eskeintzen dute eta Landibar auzoko Istakonean 9 lagunentzako eskeintza dutelarik, alajaina!

Azken baserri honetako jabeak, hala ere, ongi moldatzen direla azpimarratzen du: "Ez dugu baten-dako ere arrenkurarik".

Normalean bikoteka etortzen omen zaizkie, Madril, Lerida, Bilbo eta bertze zenbait hirietatik, "nahiz eta behin Bilboko 9 gazte denak elkarrekin etorri". Bikote ezberdinak elkarrekin bizi behar izaten duten arren, "elkarrekin ez da fitsik pasatzen egun ta santa sekulan, denak gustora gelditzen dira eta gu ere moldatzen gera geure gisara".

Beraz, badirudi nahiko gustora daudela esperientzia berri honetan hasi diren baserritar eta etxejabeak, eta gehienak aitor-tzen digutenez, "zenbat eta gehiago etorri, hobe".

AITOR AROZENA

“Duzuna eman, eman euskara”

*Gurasoen partehartzea bilatzen dute
Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Euskara Zerbitzuek*

“Zu baino
trebeagoa nahi duzu
zure haurra?
Zuk duzuna,
behinipein, eman.
Eman zure euskara.
Erdara hartuko du
zuk eman gabe ere.
**Eman duzuna,
eman euskara”**

edo...

“Zure umeen geroal-
dian partehartzeko-
tan, haien prestaketa
mailara gehien hur-
biltzea komeni zaizu.

**Hobetu zure
euskara”**

edo...

“Zu baino hobeki
prestatua nahi duzu
zure umea?
Zuk dakizun
euskara ikasi gabe ez
da zu baino hobea
izanen.

**Duzuna, behinipein
eman. Eman
euskara” ...**

...honelako mezuen
bitartez ohartarazi
nahi zaiei gurasoei,
euskararen
transmisioan duten
aparteko
garrantziaz.



Ez da ez aurtengoa gisa honetako kanpaina egiten deneko lehen aldia eta seguruenik ez dela azkenea izanen. Beraz, goian aipatu bezala, gurasoei zuzendurik dago printzipalki eta hauetan pentsatuz antolatua. Batetik euskaldunak diren gurasoetan erreparatuz, berauen seme-alabekiko hizkuntz trans-

misioa bultzatu eta segurtatzeko eta bidenabar, seme-alaben ikasketetan lagundu ahal izateko behar harko lituzketen hizkuntz oinarriak eskeintzeko eta bertetik, euskaldunak ez diren gurasoentzat, euskara ikasteak eta lantzeak eskeini ahal dizkien abantailak azalduz euskara ikastea bultzatuz.

Horretarako, Euskara Zerbitzuetatik luzatutako proposamena gauzatu ahal izateko eta euskaltegien azpiegitura erabiliz, gurasoei taldeak osatzeko aukera emanen zaie.

Horiek horrela, oraingo honetan zenbait gurasoren testimonioa bildu nahi izan dugu; bide horretan baliagarri izanen delakoan.

Zer diote gurasoek?



Juan Bautista Arretxea

Gartzaindarra,
nekazaria lanbidez eta
bi seme-alaben aita

“Gartzainen, duela guti arte, eskolan behartuta egiten genuen erdaraz baina karrikan denak eskuaraz. Oraingo umeak berriz, errax irristatzen dira erdarara. Umeek beti haundiak imitatzen dituzte, eta tristea da seme-alabei eskuaraz solastea eta gurasoek elkarrekin erdaraz aritzea”.



Tere Santxotena Alsua

sortzez Arizkundarra eta
Elizondon bizi dena,
sukaldaria lanbidez eta
bi seme-alaben ama

“Eskolan hasi nintze-nean arrotzu zitzaidan eskuara. Denbora hetan ez zuen ematen eskuarak munduan biderik bazuenik. Orai gauza diferenteago da. Gurasoek honetan inportantzia haundia dute. Ezagutzen ditut eskuaraz ez dakiten zenbait guraso, seme-alabekin batera ikasten ari direnak”.



José Mª Irazoki

Elgorriaga

Beratarra, Lanbide Eskolako
irakaslea eta
3 seme-alaben aita

“Gurasoek dakiguna irakatsi egin behar dugu eta gure seme-alabei euskal nortasuna lortzen lagundu behar diegu. Horretarako, adinik aproposena haurtzaroa da. Hau horrela izanik, garbi dago gure haurrei euskaraz hitzegin behar diegula, horrela euskaldun haziko bait dira”.



Ana Errandonea

Irazoki

Lesakarra,
Udal-administraria lanbidez
eta seme baten ama

“Gaur egun Herriko Etxetik agertzen diren gehienak euskaraz zuzentzen zaizkigu, beti izaten bada ere bakarren bat erdaraz etortzen zaiguna. Horretan, «ohiturak» hausten ari dira poliki-poliki. Alde horretatik, Herriko Etxetatik eta egiten ari diren esfuertzoei esker, aintzinerako goazi garbi”.



Tere Ibarra

Mariezkurrena

Elgorriagakoa,
arotza lanbidez eta
zortzi seme-alaben ama

“Kontzientzia maila duela urte batzuk zegoenarekin konparatuz, aisa haundiagoa da eta hori aisa nabari da. Niri hori gertatu zait eta gauza bera somatu dut inguruan. Gainera, hemengoak garenontzat euskararendako estima hori, kultura eta nortasuna indartzeko hagitz inportantea da”.




Julian Retegi

Eratsundarra,
jubilatua eta
bi alaben aita


“Eratsunen eskuararik ez da galduko. Hare, Donezteben berriz, duela urte batzutatik hona aisa gutiago aditzen da eskuaraz, tiendetan eta gazte jendetan eta... Leitzan kontrakoa. Bestalde umeetan eta, eskolan igoal eskuaraz aritu behar dute eta karrikan erdaraz aritzen dira”.

Desafio mundiala Arantzán, Mendaurrerako joan etorrian

Tomasek botatako enbidoari, Pilarika eguna baino lehen erantzun beharko dio Patxik



Tomas Telletxea



Patxi Idirte

Arantzako kronika asken hilabetetan jarraitu baldin baduzue, Tomas Telletxea eta Patxi Idirteren artean duten norgehiagokaren berri izanen duzue.

Helburua, Mendaurre-rako joan etorria, Gainsenberroko bordatik Trini-dadera, hain zuzen, ahalik eta azkarren egitea.

Bi gizon hauen artean, marka gero eta hobea egin dituzte, azkena duela gutti lortu zuelarik Patxi Idirte-k: ordu bete eta minutu

batetan egitea joan etorria.

Hau dela eta, idatzi bat igorri digu Tomas Telletxeak TTPI-TTAPARA, honako hau adieraziz:

"Badirudi zerbaiten bila gabiltzala, Mendaurrera joanez, baina egia erran ez da poztekoa:

Lehenbizi ni izan nintzen igo nintzena 51 minutoz, orain dela 6 urte. Ondoren, Patxik ordu 1, 12' 57" joan eta etorri, gero Tomasek ordu 1, 5' joan eta etorri eta berriro Patxik ordu 1, 1'.

Asko molestatzen dit oraingo marka honek, berak erran bait zidan nik egindako marka ezinezkoa zela, ez zela egia, eta finetirik ez zela testigoen aldetik; orain nik erraten dut, nik eta bertze lau gizonen ikusi zutela egiten.

Behartuz gero berriro saiatuko naiz lan bera egitera, hotz den egun batian, eta gonbidatzen zaitut, Patxi, zeure marka horrekin Abenduaren lehenean.

Goizeko zortzietan irteera, joan eta etorri des-

kantsurik gabe eta bakoi-tzak bira testigurekin.

Espero dut erantzuna ematea luzienez "Pilarika" egunerako. Eta ea bukatzen diren ibilaldiak eta marka berriak" erramez bukatzen du Tomas Telletxeak.

Beraz, horra hor desafio mundiala! Orain, erantzunaren esperoan gelditu behar eta ea burutzen den aurrez aurreko norgehiagoka ikusgarri hau. Emanen dugu horren berri.

Mountain-bike

Igantzik I. Mountain-bike Ibilbidea Bidaurretarentzat

J. Txoperena izan zen lehen igantziarra



Bidaurreta irundarra izan zen garaile haundien mailan irailaren 8an Igantzin burutu zen I. Mountain-bike Ibilbidean. Igantzik Biltokik antolatutako froga honetara 74 partaide

bildu ziren 25 kilometrotako ibilbidea bukatu asmoz (ez ziren denak ailegatu, hala ere). Lehenengo igantziarra J. Txoperena izan zen eta ttikien mailan, Arandia izan zen irabazle.

Kirol ekintza ugari Igantzik bestetan



Besta eta juergaz gain, kirol ekintza ugari izanen dituzte aurtengoz igantziarrek Sanmigeletan. Larunbatean (hilak 28), Miguel Elizalde memorialaren bukaera eta Nafarroako soka-tira semifinalak eta astelehenean pilota partiduak, eskuz eta palaz, maila ezberdinetan. Igandeko XII. Artzai Txakur Txapelketa atzendu gabe.



Txirrindulari denboraldiaren bukaera, Lesakan hilaren 28an

«Miguel Elizalde» memoriala burutuko da

Lesakan, hilaren 28an jubenil mailako txirrindularientzat burutuko den «Miguel Elizalde» memorialarekin bukatuko da aurtengoz gure eskualdean txirrindularitza denboraldia.

Basurde Elkartek antolatzen duen froga honek 75 kilometroko ibilbidea

izanen du: Lesaka-Etxalar-Lesaka-Bera-Lesaka-Igantzi-Igantzik benta-Lesaka-Bera-Lesaka-Igantzik benta-Igantzi (helmuga).

Froga honetan, gaitz nontzekoetan bezala, Baztan-Erreka-Bidasoa (AHV) taldekoek parte hartuko dute.

Hamabostaldiko jokaldiak



Bortziriak nesken futbol taldea.

Hasi berriak zaizkigu neskak futbol haundian, «Zikiri» lesakarra entrenatzaile dutelarik. Ez nolahi hasi gainera, aurtengoz partidua Irungo Dunboaren aurka irabaziz.



Larunera trenez igo zirenak.

Akelarre-91 zela eta Larunerako ibilbidea antolatu zen, baina guztiak ez ziren oinez joan, trenean baizik. Bestondoa pasatzeko, izerdia ateratzea bezelakorik ez dagoela!!

Etxebizitzak

• **Beran** etxebizitza salgai, 100m² gehi 22m² balkoi, 9 milioitan. 630522

• **Beran** alkilatzeo pisua behar da. Norbaitek baldin badu dei dezala 630072 tfnora. Ana.

• **Piso** bat alokatu nahi dugu Lesakan edo inguruan. Tfnoa: 580541 (gauez).

• **Beran baserri**, borda edo pisu bat alkilatuko genuke. Tfnoa: 631136.

Lana

• **Pertsona heldua** behar da adineko bat zaintzeko. Interesatuak dei dezala 630259 tfnora.

• **Espesientziadun administrariak** edozertan lan eginen luke. Tfnoa: 943 397388. Luis

• **Euskaraz eta frantsesez** dakien neskak jate-txe edo denda batean lan eginen luke. 63 74 10.

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolarientzat, elkarteentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitza

bertzerik ez duzu. 631059.

• **Pultsera** bat, Lidia izena grabatua, galdu dut Eratsunen. Tfnoa: 615048. Josefa Urrutia.

• **Saski Zar** ostatua traspasatu edo saltzen da. Tfnoa: 63 1188.

• **Katu** persa bat galdu da Elgorriagan. Katu marroia, ederra eta ile aunitzekin. Aurkitzen baduzu, deitu 45 15 52 tfnora. Eskertuko da.

• **Silvia Mazizorekin** frantses klaseak. Tf630108

• **Ardi zakurra** dohain ematen dut. 45 15 18 tfnora.

Salerosketak

• **5 urteko** behia 3 hilabete ernari dagoena eta hiru urteko bertzea aretxearekin salgai. Baita Alfa-Laval ordeñadora ere. Tfnoa: 634133.

• **R-5 GTL NA-W** matrikulakoa salduko nuke. 50.000 kilometro ditu eta egoera oso onean dago. Tfnoa: 63 72 36.

• **Belarra mozteko** makina salgai. Tfnoa: 634072. Arantza.

• **3 esne-behi** onak sal-

tzen dira. Tfnoa: 59 21 79. Oronotz- Mugaire.

• **Sukalde** kalefaktorea salgai. Dietrich. Tfnoa: 635004.

• **Artzai** zakurkumeak salgai. Tfnoa: 637 410.

• **Bultaco** Matador bat salgai. Hagitz merkea eta egoera onean. Ehizarat joateko egokia. Tfnoa: 631188.

• **Erbi-ehizarako** 10 hilabeteko zakurra salgai. Tfnoa: 615016. Saldias.

• **Zaldia**, bi urte terdikoa salgai. Tfnoa: 615016 Saldias.

• **Kanarioak** salgai: aurten jaiotako ar horixka eta 3 urtetako eme berdexka. Oso merkeak. Tfnoa: 631355 tfnora deitu gaueko 9etatik aintzinera.

• **Bi hilabetetako** katu pertsak (25.000 pzta.) eta euskal artzai zakurkumea (10.000 pzta.) salgai. Deitu 451518 tfnora.

Harremanak

• **Arantzako** Julian M^a Tabernarentzat: zu zara zeru urdinetik jauzitako perlarik paregabeena. Zutaz erotuta nago. Ia noiz

enroilatzen garen. Doneztebeko pottoka.

• **Goizuetako** Iñigoren-tzat neska baten partez muxu haundi-haundia. E.R.

• **Etxalarko** M. Iparra-girrerre: ezagutzen dudana neskatarik ederrena zara. Aspaldian zure atzetik nabil, muxu bat. Leitzako mutil bat.

• **Lekarozko** Robertoren-tzat. Oso potxoloa zara. Gure bihotzeko opiltxo goxoa. Zutaz maiteminduta gaude. Hiru besarkada.

• **Elbeteko** Nati Juanikotena aunitz maite zaitut. Zu zara nire bihotzeko lore ederrena. Zure lagun, Igantzi.

• **Sunbillako** Mikelen-tzat: Hagitz ona zaude, Doneztebeko Mari Karmenen partez.

• **Iruritako** Mariano-rentzat, oso mutiko jatorra zara. Ea etortzen zaren egunen batean Elizondora. Musu bat.

• **Etxalarko** A.M. Indabururentzat. Zaindu zure mutil poxpolintxo hori oso jatorra da. M.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

EUSKALTEGIAN BADUZU AUKERA APUNTA ZAITEZ!

Zertarako?

- ❖ *Ttipi-ttapa, Egunkaria... enazago irakurtzeko.*
- ❖ *Euskal Telebista edo Iratia enezago ulertzeko.*
- ❖ *Udaletxeko paperetan, charnak, eskutitzak... euskaraz idazteko.*
- ❖ *Umeei eskolako lanetan laguntzeko*
- ❖ *Kantak, bertsoak, historia... gure hizkuntza eta kultura hobeki ezagutzeko.*

MAILA GUZTIAK

- Hasiera
- Hobetzeko
- Mintzatzen dakitenentzat,
irakur, idazteko
- EGA

ORDUTEGIAK

- Astean 8 ordu (lau egun)
- Larunbatez lau ordu (EGA
edo antzekoak)

ZENBAT DENBORA?

- Urrik maiatzera
- 2 hilabetekoak

- | | |
|--------------|------------------|
| • LEITZALDEA | 610776 |
| • MALERREKA | 451555 |
| • BORTZIRIAK | 637796
631105 |



Herri guzietan egin daitezke taldeak


URRIAREN 8a arte

DELPECH PAUL
ELIZA BIDEA
64310 SARA

ttipi-ttapa, Herriko Etxeko Plaza, 1 - 31780 BERA

IGANTZI

XII. Artzai Zakur Txapelketa 1991ko Irailaren 29an arratsaldeko 4,30etan Meakaundiko zelaian



Argazkia: GOIKO



NAFARROAKO AURREZKI KUTXA